

Antxiñako fotografia

San Migel parrokiako organua oraingo lekura aldatu aurretik

Berrogeta hamabost urte beteko dira aurten **San Migel parrokiako organo ederra** orain dakon kokapenera aldatu zanetik. Ezta hau, jakiña, parrokiako lehenengo organua. XVI. gizaldixa ezkerro, badittugu San Migeleko organo eta organisten gaineko albistiak. Baiña oraingo honen kajia eta lehenengo egitturia XVIII.ekua dogu. Hartarako eta organuari eusteko, **arku txurrigeresko** ikusgarri bat jaso zan erdiko nabearen ezkeraldeko hirugarren zutabetzarraren eta koruaren artian. Arku horren diseiñua **Miguel Salezanek** moldau eben 1749xan eta landu **Juan Bautista Jauregi** hargiñak egin eben. Organu barrixa **Jose Santiago Albisua Belastegi** organugillia hasi zan moduketan 1787xan. Harrezkerro hainbat barrikuntza eta hobekuntza izan dittu berrehun urtetik gorako historixa luzian. Arku gainetik koru barrenerako **leku-aldaketia** 1957. urtian gauzatu zan, **Reyes Korkostegi** alkatiak eragindda eta **Leokadio Galdos** nahiz **Alejandro Usabiaga** organeruen ardurapeian, parrokiako organistia **Julian Zelaia** oñatiarra zala. Erabillera barik geratu zan Salezan-Jauregiren arku dotoria handik urte batzuetara aldatu euen bi hargin bikaiñek sakristixa aurrera: **Manuel Vasconcelos** portugaldarrak eta **Jabier Bikuña Albarritza** oñatiarrak.

Fotografia **Ricardo Bastida Bilbao** (1879-1953) arkitekto bilbotar famauak ataratakua da, XX. mendeko lehenengo hamarkadetan. Illun samarra baldin bada be, ondo erakusten dosku organuaren antziñako kokapena arku barrokuaren gainian. Lehengo korua sakonagua zan, kanta-liburuentzako **anboia** eukan erdixan, argazkixan ikusten dan moduan, eta barrenengo horman **Santa Zeziliaren** koadro haundixa. Koruko aulketerixiak jarleku dezente galdu eben aldaketa honekin. Ricardo Bastida oso arkitekto ezaguna zan urte hareittan eta bere lanak danok ikusi dittugu, Bilbon batez be: beste askoren artian, orain erabarrittu dauen **Alhondiga** entzutetsua, **Indautxuko eskolak**, zabalguneko **Institutua**, edota **Solokotxe**, **Torremadariaga** eta **Torreurizarreko langille-auzuak**. Euskal Herrittik kanpora **Madrileko Alcalá** kaleko **Bilbao bankua** da, akaso, ezagunena, **Aurelio Arteta** pinttorearen eta beste artista euskaldun batzuen lan ederrekin apainddutakua.

J. E.

Argazki hau ez ezik, beste zortzi Oñatiko fotografixa zahar be eskuratu ahal izan dittugu Bilboko Bastida familiaren bittartez. Milla esker!

Zuzenketa: Orain hurrengoko zenbakixan San Juan Artixako sukaldian agiri dan fraide argazkilarixa ezta Isidro Gerra, Isidro Garro baiño, Eskoriatzako Bolibar auzoko semia. Arantzazuko Joxe Luis Zurutuzari esker lortu dogu argibide hau.

